


I. ERANSKINA: ARLOAREN, JAKINTZAGAIAREN EDO EREMUAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILLOIA

Enpresa ekonomiako urteko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	 B.H.I. I.E.S. SATURNINO DE LA PEÑA	Kodea:	014441	Ikasturtea:	2023-2024
Etap:	Batxilergoa	Zikloa/maila:	Bigarren maila		
• Jakintzagai	Enpresa ekonomia	Irakasleak:	Iban Gil Huerta		

Programazio didaktikoaren justifikazioa

Ikasleek Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako funtsezko konpetentzia guztiak eskuratu izana hartzen du abiapuntu irakasgaiak. Enpresen funtzionamendua eta aukera sozial eta ekonomikoak ulertzea ahalbidetuko duten elementuekin eta aurre egin beharreko zailtasunekin, baita gogoeta kritiko eta eraikitzailearekin eta egungo arazo eta erronketarako soluzio-proposamenarekin erlazionatuta.

Zentroa ezker aldeko eremuan dago, Bizkaian, eta erabiltzen den irakaskuntza-metodologiara egokitutako egiturazko baliabideak eta didaktikak ditu.

Ekonomia irakasgaia testuinguru sozioekonomiko ertaineko ikasleak osatutako talde bati zuzenduta dago. Taldean ikasle errepikatzailearik balego, gainerako ikasleek bezala, programazio irekia eta malgua izango du, ikasleen beharretara, gaitasunetara, mailara eta ingurunera egokituta, eta horrela, ikasleen aniztasunari erantzungo dion hezkuntza eta irakaskuntza inklusiboa indartuko du.

Zentroan dauden proiektuak ondorengoak dira:

1. Informazio eta komunikazio teknologiak
2. Hizkuntza Normalkuntza Proiektua
3. Hezkidetza proiektua
4. Agenda 2020-30
5. Bidelaguna
6. Bikaintasuneruntz

XXI. mendeko erronkak:

Curriculumaren plangintza

Unitateakak	<u>Konpetentzia espezifikoak</u>	<u>Deskriptore operatiboak</u>	<u>Ebaluazio-irizpideak</u>	<u>Oinarrizko jakintzak</u>
LEHEN HIRUHILEKOA				
Egoera balantzeak	5	KD2, KD3 KPSII1.1, KPSII5, EK1, EK2, EK3	5.2 5.4 5.5	D
StartInnova	1,2,3,4,5	HKK2, HKK3 KD 1, KD2, KD 3, KD5 KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII2, KPSII3.2, KPSII 5 EK1 , EK2, EK3 HK1, HK3, HK4 STEM 2, STEM 4 KE1, KE 2	1, 2, 3, 4.2, 5.2, 5.3	A,B,C,D
BIGARREN HIRUHILEKOA				

<p>StartInnova</p>	<p>1,2,3,4,5</p>	<p>HKK1, HKK2, HKK3</p> <p>KD 1, KD2, KD 3, KD5</p> <p>KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII2, KPSII3.2, KPSII 5</p> <p>EK1 , EK2, EK3</p> <p>HK1, HK3, HK4</p> <p>STEM 2, STEM 4</p> <p>KE1, KE 2</p>	<p>1, 2, 3, 4.2, 5.2, 5.3</p>	<p>A,B,C,D</p>
<p>Behargintza</p>	<p>1,2,3,4,5</p>	<p>HKK1, HKK2, HKK3</p> <p>KD 1, KD2, KD 3, KD5</p> <p>KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII2, KPSII3.2, KPSII 5</p> <p>EK1 , EK2, EK3</p> <p>HK1, HK3, HK4</p> <p>STEM 2, STEM 4</p> <p>KE1, KE 2</p>	<p>1, 2, 3, 4.2, 5.2, 5.3</p>	<p>A,B,C,D</p>
<p>HIRUGARREN HIRUHILEKOA</p>				

Giza baliabideak	2,3,4	HKK1, HKK2, HKK3 KD 1, KD2 KPSII2, KPSII3.2, KPSII 5 EK1 , EK2, HK3, HK4 STEM 2, STEM 4 KE1, KE 2	2.2, 2.3, 2.4 3.2 4.1	A,B
-------------------------	--------------	---	--	-----

Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, etab.

Unitate didaktikoei dagozkion edukiak azalduko ditut. Azaltzen ari naizen bitartean edota azaldu ostean, galderak luzatuko dizkizuet, zuen eta nire arteko interakzioa emango delarik. Honela, edukiak barneratzen saiatuko gara.

Klasean adi egon behar da, eta ondoren etxean irakurri, errepasatu. Horrela eginez gero, ziur zalantzak sortuko zaizkizuela, eta hurrengo egunetan zalantza horiek argitzen saiatuko gara. Galdetu beldurrik gabe; galdetu gabe, ezin baitira zalantzak argitu.

Ikasgaiak eduki teorikoak eta praktikoak izango ditu. Orotariko edukiak lantzeko, liburuak zein nik neuk proposatuko ditudan ariketak egingo ditugu. Hauetariko batzuk ikasgelan, eta besteak etxean.

Gure inguruko enpresak jarriko ditugu gaiko edukiak azaltzerakoan adibide gisa.

Gaiak aukera ematen digunean, egunkarietako artikulu nahiz interneten argitaratutako artikulu errazen bat irakurri eta aztertuko dugu.

MATERIAL DIGITALA

Edukien azalpenen euskarri bezala, eduki osagarriak landu ahal izateko eta dokumentuak ikasleekin partekatzeko ondorengo material digitala erabiliko dugu:

- **Proiektorea.**
- **Arbela digitala.**
- **Youtubeko bideoak.**
- **Interneteko web orrialde** desberdinak non erakunde ofizialen orriak aztertuko ditugun besteak beste.
- **Powerpointak** eta **Prezi** euskarria (nik landuak eta ikasleek aurkezpenetarako eginak).
- **Gmail korreoa, Classroom, Drive lainoa** eta **eskolako sarea** ikasleekin lana elkar banatzeko eta zuzentzeko.
- **Office software** desberdinak: aipatutako powerpoint eta kalkulu orriak.

IDU

Ebaluazioari, haren ondorioei eta kalifikazio-irizpideei buruzko erabakiak

Ebaluazioa	Ebaluazioaren ondorioak:	Kalifikazio-irizpideak
-------------------	---------------------------------	-------------------------------

HELBURUAK

- Jarrera arduratsua garatzea, ingurumenaren degradazioaren kontzientzia hartuz, hura eragiten, larriagotzen edo hobetzen duten arrazoien ezagutzan oinarrituta, ikuspegi sistemiko batetik, tokikoa zein globala.
- Kontsumo arduratsuekin lotutako alderdiak identifikatzea, norberaren eta guztion ondasunean duten eragina baloratzea, beharrak eta gehiegikeriak kritikoki epaitzea eta kontsumitzaile gisa dituen eskubideen urraketan aurrean kontrol soziala egitea.
- Bizi-ohitura osasungarriak garatzea, organismoaren funtzionamendua ulertuta eta organismoan eragina duten barneko eta kanpoko faktoreei buruzko hausnarketa kritikoa eginda, osasun publikoa sustatzeko erantzukizun pertsonala bere gain hartuta.
- Sentsibilitatea lantzea ekitaterik eza eta bazterketa egoerak atzemateko, kausa konplexuak ulertuta, enpatia-eta erruki-sentimenduak garatzeko.

ERREKUPERAZIO SISTEMA:

Ebaluazioa gainditu ez duenak, lehenengo zein bigarren ebaluazioan, ez-gainditu hori errekerperatzeko aukera izango du errekerperazio-azterketa baten bitartez.

Aukera ezberdinak

- a) Ikasgaia lanak egin ez direlako, lanen alorrean gutxieneko %ko 30a lortu ez delako edota kuadernoko ariketak egin gabe daudelako suspenditu bada, irakasleak lanen bat bidaliko dio eta kuadernoa ariketak eginda errekerperazio egunerako entregatu beharko da.
- b) Ebaluazioko azterketaren atala ez duzu gainditu. (Azterketaren bat ez duzu gainditu edo ez zara batz bestekora iritsi bi azterketetan) Azterketa bat egingo zaizu EBALUAZIO OSOAREKIN, eta bertan lortutakoa izango da berreskurapen-nota. Kontuan izan, bigarren aukeran gaindituz gero, nota ezberdin baloratuko dela:

7 puntu edo gutxiago ateratzen baduzu berreskurapen-azterketan (eta

Edukiak barneratu diren jakiteko, azterketak eta lanak baloratuko dira batik bat. Jarrera ere kontuan hartuko da.

• **Lanak: % 10 (10etik, puntu 1)**

Ebaluazioan zehar gelan zein etxean eginiko lanak baloratuko dira.

- Lan guztiak egiten badira, %100 alegia, puntu bat lortuko da: 1
- Egiten den lanaren araberrako puntuazioa lortuko da. Erdiak egiten badira, 0,5 puntu.

Oharra: lanen alorrean gutxieneko %30a lortzen ez bada, ikasgaia ez da gainditutzat emango.

- Kuadernoko ariketak kontrolatuko dira. Honek ere %10eko notan eragina izango du. Ariketak egin gabe badaude, ebaluazioa ez da gainditutzat emango.

• **Azterketak: % 90 (10etik, 9 puntu)**

Bi azterketa egingo dira ebaluazio bakoitzean. Hirugarren ebaluazioan ikusiko da azterketa bat ala bi egingo diren.

Azterketei dagokien nota bi probetan ateratako batez bestekoa izango da, baldin eta gutxienez 4 atera duzen

<p>– Gatazkak gizarteko bizitzaren berezko elementu gisa ulertzea, modu baketsuan konpondu beharrekoak.</p> <p>– Egungo gizarteak eskaintzen dituen era guztietako aukerak modu kritikoan aztertzea eta baliatzea, bereziki kultura digitalarenak, onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizi-kalitate pertsonala eta kolektiboa hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.</p> <p>– Ziurgabetasuna, erantzun sortzaileak artikulatzeko aukera gisa onartzea, berekin ekar dezakeen antsietatea maneiatzen ikasiz.</p> <p>– Gizarte ireki eta aldakorretan lankidetzan aritzea eta elkarrekin bizi-erabakia hartzea, aniztasun pertsonala eta kulturala aberastasun-iturri gisa baloratuz eta beste hizkuntza eta kultura batzuekiko interesa agertuz.</p> <p>– Proiektu kolektibo baten parte sentitzea, bai tokiko eremuan, bai esparru globalean, enpatia eta eskuzabaltasuna garatuz eta guztion onerako erabaki koherenteak bultzatuz eta hartuz.</p> <p>– Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko aukera emango dioten trebetasunak garatzea, ezagutzan konfiantza izanik, garapenaren motor gisa, eta</p>	<p>noski, 5 edo gehiago), lortuko den balorazio-nota 5 izango da</p> <p>>7 baina 8 edo gutxiago ateratzen bada berriz, 6 ipiniko da</p> <p>8 baino gehiago ateraz gero, 7 ipiniko da.</p> <p>Errekuperazioan gaintitzen ez diren ebaluazioak, ohiko deialdian gaintitu daitezke.</p> <p><u>3.ebaluazioan ez dago errekeruperaziorik.</u></p> <p>Ikasturteko nota eta ohiko deialdia: Ikasturteko nota, 3 ebaluazioetako noten batez bestekoa izango da. Batez bestekoa egiteko, ebaluazio bakoitzean gutxienez 4 bat eduki beharko da. Batez besteko honek gutxienez 5 eman beharko du ohiko deialdian ikasturtea gaintituzat emateko.</p> <p>Era honetara ikasturtea gaintitzen ez bada, gaintitu gabeko ebaluazioetako edukiak eskatuko zaizkizu ohiko deialdian, eta gaintitzeko gutxienez 5 atera beharko duzu gaintitzeke dituzun ebaluazioetan.</p> <p>Nota borobiltzeko eta ohiko deialdiko nota jartzerakoan, aurreko ataletan aipatutako balorazio-irizpide berberak</p>	<p>proba horietako bakoitzean. (10etik 4)</p> <p>Kontrolean edo azterketan 4tik behera ateratzen bada, zuzenean ebaluazioan <u>ez-gaintitua</u> izango duzu eta errekeruperaziora aurkeztu beharko zara. Errekuperazioan ebaluazio osoa izango da.</p> <p>Oharra. <i>Klaseko dinamikak pisu berezia lukeen lan edota aurkezpenen bat eskatzeko aukera ematen duenean, lan hori bereziki baloratuko da atal honetan. Lan hau egin eta gaintitzea ezinbestekoa litzateke ebaluazioa gaintitzeko, eta azterketen pisutik irtengo litzateke honen balorazioa.</i></p> <p><u>OHARRAK</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Azterketen atala gaintitzen bada soilik gehituko zaizkio notari jarrera eta lanen puntuazioa. • Nota borobiltzeko: <ol style="list-style-type: none"> a) Hamarrekoa 5 edo gehiago bada, gorantz borobilduko da. (adibidez 5,5= 6) b) Kontuan izan, ebaluazioan ateratako benetako nota (dezimalekin) hartuko dela kontuan kurtso amaierako batez bestekoa kalkulatzeko.
--	---	---

<p>ezagutzaren arrisku eta onuren balorazio kritikoa eginez.</p> <p>FINKATUTAKO DENBORAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1.Ebaluazioa <ol style="list-style-type: none"> 1- Egoera balantzeak 2- StartInnova • 2.Ebaluazioa <ol style="list-style-type: none"> 3- StartInnova 4- Behargintza • 3.Ebaluazioa <ol style="list-style-type: none"> 5- Giza baliabideak <p>Denboralizazioa ;55 minutuko 4 saio astean, kurtsoan zehar.</p> <p>EBALUAZTEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK</p> <p>Ebaluazio tresnak ondokoak izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ebaluazioko bi azterketa idatzi, azken ebaluazioan ezik. Azken ebaluazioan, idatzizko probak bat edo bi izango dira (bere momentuan erabakiko da) • Etxeko lanak, zeintzuek behaketa bidez kontrolatuko diren eginak dauden. • Bakarkako lanak <p>ERAGILEAK</p>	<p>jarraituko dira, xehetasun hauek kontuan hartuz:</p> <p>Ebaluazioetan zehar lortutako noten arteko oreka</p> <p>Batez bestekoa ebaluazio bakoitzean lortutako benetako notarekin egingo da, buletineko nota borobilduta egoten da (beraz, borobildu aurrekoa hartuko da aintzat)</p> <p>Ikasleak ezagutzak bereganatu eta autonomia lortzeko bidean izandako bilakaera</p> <p>Ez ohiko deialdia:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez ohiko deialdian, ikasturte osoko edukiak eskatuko dira. Salbuespenak salbuespen, ikasle bakoitzaren urte osoko lana eta eboluzioaren arabera, gainditu gabeko ebaluazioak bakarrik eskatzea aztertuko da. • Gainditzeko eskatuko den gutxieneko nota, 5 izango da. • Ez ohiko nota beti 5 izango da. <p>Ikasleari ikasgaia gainditzen laguntzeko, irakaslea prest egongo da azalpenak behar adina eskaintzen, ikaslea jolas garaietan mintegira azalduz. Behar den kasuetan, ariketa gehigarriak ere emango zaizkio ikasleari. Ariketak egitea</p>	<p>NOTA IGOTZEKO AUKERA</p> <p>Ebaluazio bakoitzean nota hobetzeko aukera izango da. Azterketa erreperazioarekin batera egingo da.</p> <p>Ebaluazio osora aurkeztu beharko da.</p> <p>Nota igotzeko azterketa horretan ateratako nota eta ebaluazioko notaren arteko batz bestekoa egingo da ebaluazioko nota berria kalkulatzeko. Oharra: nota hoberako zein okerrerako alda daiteke (notaren arabera)</p>
--	--	--

<p>Lan taldeen eta bakarkako lanen ebaluaketa egiterako garaian, auto ebaluaketa (%3,3), ko ebaluaketa (%3,3) eta hetero ebaluaketa (%3,3) erabiliko da. Lana nota osoaren %10 izango delarik.</p>	<p>eta errepasatzea oso garrantzitsua izango da ikasgaia gainditzeko.</p>	
--	---	--



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

--	--	--

JAKINTZAGAIA: **EKONOMIA** Batxilergoko 2 maila

- KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK
- DESKRIPTORE OPERATIBOAK (FUNTSEZKO KONPETENTZIAK)
- OINARRIZKO JAKINTZAK

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	LOTURA FUNTSEZKO KONPETENTZIEKIN (Deskriptore operatiboak)
<p>1.Enpresa-jarduera eta jarduera ekintzailea aztertzea, gizartean duten eraldatze ahalmena onartuz eta prozesu horretako berrikuntzaren eta digitalizazioaren balioaz gogoeta eginez, gaur egungo ekonomiaren funtzionamendu orokorrean duten zeregina ulertzeko.</p> <p>(Azalpena)</p>	<p>1.1 Enpresa-jarduerak eta ekintzaitzak egungo ekonomian duten garrantzia ulertzea, gizartean duten eraldatze-ahalmena ezagutuz eta berrikuntzaren eta digitalizazioaren balioaz hausnartuz.</p> <p>1.2 I+G+Bak gizarte- eta enpresa-garapenean betetzen duen eginkizuna aztertzea, ekonomian inpaktu handia duten joera eta teknologia berriak identifikatuz.</p>	<p>HKK2,</p> <p>KD2, KD5</p> <p>KPSII1.2, KPSII3.2,</p> <p>EK1 , EK2</p> <p>HK1</p>

<p>2. Ingurune ekonomikoa eta soziala eta ingurune horrek enpresa-jardueran duen eragina ikertzea, enpresen eta ingurunearen arteko erlazioak aztertuz eta erantzukizun sozial korporatiboaren, berdintasunaren eta inklusioaren irizpideetatik abiatzen diren estrategia bideragarriak identifikatuz, enpresen egokitze-gaitasuna baloratzeko.</p> <p>(Azalpena)</p>	<p>2.1 Enpresak jarduera garatzen duen ingurunearen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, horietatik abiatuta hartutako estrategiak eta erabakiak azalduz eta jarduerak gizartean eta ingurumenean izan ditzakeen ondorioak azalduz.</p> <p>2.2 Enpresa motak, enpresen elementuak eta eginkizunak eta enpresek hartzen dituzten forma juridikoak ezagutzea, jabeen eta kudeatzaileen legezko erantzukizunak eta kapitalaren eskakizunak horietako bakoitzarekin erlazionatuz.</p> <p>2.3 Enpresek inguruko aldaketetara eta merkatuaren eskakizunetara azkar, arduraz eta modu jasangarrian egokitze duten gaitasuna baloratzeko, haien ingurune ekonomikoa eta soziala eta enpresa-jardueran duten eragina ikertuz.</p> <p>2.4 Negozio-eredua abian jartzeko tramite fiskalak, lanekoak eta Gizarte Segurantzakoak ezagutzea, legezko betekizun horiek betetzearen garrantzia baloratuz.</p>	<p>HKK2, HKK3,</p> <p>STEM4,</p> <p><u>KD1</u>,</p> <p>KPSII2, KPSII5,</p> <p>HK4</p> <p><u>EK1</u></p>
<p>3. . Egungo negozio-ereduak ezagutzea eta ulertzea, beste eredu tradizional batzuekin alderatuz eta sormen-diseinua errazten duten estrategiak eta tresnak aplikatuz, balioa eman, beharrak ase eta ongizate ekonomiko eta sozialari laguntzen dioten negozioereduak</p>	<p>3.1 Egungo beharrei erantzutea ahalbidetuko duen negozio-eredu eraldatzailea proposatzea, eredu desberdinak konparatuz eta sormen-diseinuko estrategiak eta tresnak erabiliz.</p> <p>3.2 Enpresa-erakundearen arloak aztertzea, hala nola ekoizpen-arloa, merkataritzakoa, finantzetakoa edo giza baliabideetakoa, arlo horien ezaugarriak aztertuz, negozio-eredu berritzaile baten kudeaketa efizientea lortzeko.</p>	<p>HKK2, HKK3,</p> <p>STEM2</p> <p>KD1</p> <p>KPSII3.2</p> <p><u>HK3</u></p>

<p>proposatzeko.</p> <p>(Azalpena)</p>		<p><u>EK1</u></p>
<p>4.Enpresa-munduan aplikatzekoak diren komunikazio-estrategiak baloratzea eta aukeratzea, formula berriak erabiliz eta enpresaren barruan nahiz kanpoan sortzen den informazioa lortuz, erabakiak hartzeko prozesuan beharrezkoa den informazioa eraginkortasunez kudeatzeko eta behar bezala transmititzeko</p> <p>(Azalpena)</p>	<p>4.1 Enpresaren barne- eta kanpo-esparruan lortutako informazioa eraginkortasunez kudeatzea, komunikazio-formula berrien bidez informazioaren transmisioa errazten duten komunikazio-estrategiak hautatuz.</p> <p>4.2 Gauzatutako negozio-ereduaren proiektua azaltzea, hizkuntzen erabilera eraginkorraren bidez eta gainerakoak balio proposamenarekin erakartzeko eta interesa pizteko behar diren tresnen erabilera eraginkorraren bidez.</p>	<p>HKK1, HKK3,</p> <p>KD2,</p> <p><u>KPSII3.2</u></p> <p>EK2.</p> <p><u>KE1, KE2</u></p>

5. Diseinatutako negozio-ereduaren behin-behineko analisia egitea, gauzatutako prozesu osoa ulertzeko eta negozio-ereduaren proposamena baliozkotzeko behar diren enpresa-analisirako tresnak aplikatuz..

(Azalpena)

5.1 Planteatutako negozio-eredurako inbertsio-proiektuak baloratzea, VAN eta PAYBACK emaitzetatik abiatuta alternatibarik onuragarrienaren aukeraketa modu arrazoituan justifikatuz.

5.2 Diru-sarreraren eta kostuen egitura zehaztea, haien etekina eta errentagarritasun-atalasea kalkulatzuz, planteatutako negozio-eredutik abiatuta.

5.3 Simulatutako agertoki jakin batean oinarritzko negozio-plana egitea, hartutako erabakiak justifikatuz.

5.4 Ekonomia- eta finantza-egoera aztertzea eta azaltzea, balantzean zein galdu-irabazien kontuan jasotako informaziotik abiatuta, aurkitutako desoreketarako balizko soluzioak adieraziz.

5.5 Testuinguru jakin batean diseinatutako negozio-ereduaren proposamena baliozkotzea, gauzatutako prozesu osoa barne hartuz, enpresa-analisirako zenbait tresnaren bidez.

KD2, KD3

KPSII1.1, KPSII5,

EK1, EK2, EK3.

DESKRIPTORE OPERATIBOAK (FUNTSEZKO KONPETENTZIAK) Batxilergokoak

(HKK) HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

HKK1: Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten du, ahoz, idatziz, siglen bidez z edo multimodalki, jarioetasunez, koherentziaz, zuzentasunez eta testuinguru sozial eta akademikoetara egokituz, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzan eta errespetuz, informazioa trukatzeko, ezagutza sortzeko eta iritziak argudiatzeko nahiz pertsonen arteko harremanak ezartzeko eta zaintzeko.

HKK2: Hainbat eremutako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testuak euskaraz zein gaztelaniaz, jarrera kritikoz ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu, eta arreta berezia jartzen du testu akademikoetan eta komunikabideetako testuetan, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.

HKK3: Hainbat iturritatik datorren euskarazko eta gaztelaniazko informazioa modu autonomoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, eta, horretarako, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzen ditu irakurketa-helburuen arabera, manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak saihestuz, eta ezagutza bihurtzen du, modu argi eta zorrotzean komunikatzeko, ikuspegi sortzaile eta kritikoa hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera.

HKK4: Autonomiaz irakurtzen ditu literaturako lan garrantzitsuak euskaraz eta gaztelaniaz, eta erlazionatzen ditu bere testuinguru soziohistorikoarekin, aurreko eta ondorengo literatura-tradizioarekin eta haren ondareak gaur egun duen arrastoa aztertuz, obren interpretazio arrazoitua eraikitzeko eta partekatzeko, asmo literarioko lanak sortu eta birsortzeko eta pixkanaka mapa kultural bat osatzeko.

HKK5: Komunikazio-praktikak bizikidetzaren demokratikoaren, gatazkak elkarrizketaren bidez kudeatzearen eta pertsona guztien eskubideberdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, erabilera diskriminatzaileak eta sexistak saihestuz eta

(KE) KONPETENTZIA ELEANIZTUNA

KE1: Arintasunez, egokitasunez eta zuzentasunez erabiltzen ditu hizkuntza bat edo gehiago, familiahizkuntzaz eta hizkuntza ofizialez gain, bere komunikazio-beharrei bat-batean eta autonomiaz erantzuteko, eremu pertsonaleko, sozialeko, hezkuntzako eta profesionaleko egoera eta testuinguru desberdinetan.

KE2: Bere esperientzietatik abiatuta, banakako hizkuntza-errepertorioa modu sistematikoan zabaltzeko eta aberasteko estrategiak garatzen ditu, modu eraginkorrean komunikatzeko eta, aldi berean, hizkuntzen arteko ezagutzak eta komunikazioa transferitzeko.

KE3: Ikastetxean eta ingurunean dagoen hizkuntzaeta kultura-aniztasuna ezagutzen eta kritikoki baloratzen du, eta bere garapen pertsonalean integratzen du, aniztasun horrekiko errespetuzko jarrera erakusten du eta hizkuntzak kultura-ondare gisa baloratzen ditu

baztertuz, bai eta botere-abusuak ere, komunikazio-sistemak modu eraginkorreetan eta etikoan erabil daitezzen eta euskararen ohiko erabilerarekiko jarrera proaktiboa izan dadin laguntzeko.

(STEM) MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA eta ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA INGENIERITZARAKO KONPETENTZIA

STEM1: Arrazoiketa matematikoaren berezko metodo induktiboak, deduktiboak eta logikoak erabiltzen ditu, baita metodo zientifikoaren arrazoiketa hipotetiko-deduktiboa ere, aukeratutako modalitatearen berezko egoeretan, eta problemak ebazteko hainbat estrategia hautatu eta erabiltzen ditu, jarraitutako prozesua eta soluzioak kritikoki aztertuz eta prozedura birformulatuz, beharrezkoa izanez gero.

STEM2: Pentsamendu zientifikoa erabiltzen du aukeratutako modalitatearekin zerikusia duten fenomenoak ulertzeko eta azaltzeko, eta ezagutzan konfiantza du, garapen-motor gisa. Horretarako, galderak egiten ditu eta hipotesiak formulatzen, kontrastatzen edo egiaztatzen ditu behaketaren, esperimentazioaren eta ikerketaren bidez. Halaber, lanerako egokiak diren tresnak erabiltzen ditu, zehaztasunaren eta egiazkotasunaren garrantzia balioesten du, eta eredu zientifikoarekiko ondorio oinarrituak eta koherenteak ateratzen ditu, erabilitako metodoen irismenari eta mugei buruzko jarrera kritikoa erakutsiz.

STEM3: Proiektuak planteatu eta garatzen ditu, behar edo arazo bati irtenbidea emango dioten produktuak elkarlanean sortzeko eta/edo erabiltzeko prototipoak edo ereduak diseinatuz eta sortuz, talde osoaren parte-hartzea saiatuz, sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan konponduz, ziurgabetasunaren aurrean egokituz eta lortutako produktua proposatutako helburuen, iraunkortasunaren eta gizartearen duen eragin eraldatzailearen arabera ebaluatuz.

STEM4: Ikerketa zientifikoaren eta teknikoaren elementu garrantzitsuenak argi eta zehatz interpretatzen eta transmititzen ditu, hainbat formatutan (grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, hizkuntza matematiko-formala...), kultura digitala etikaz eta erantzukizunez baliatuz,

(KD) KONPETENTZIA DIGITALA

KD1: Bilaketa aurreratuak egiten ditu, eta Interneten bilaketa-motorrek nola funtzionatzen duten ulertzen du, baliozkotasun-, kalitate-, gaurkotasun- eta fidagarritasun-irizpideak aplikatuta, emaitzak modu kritikoa hautatuta eta informazioa modu egoki eta seguruan biltegitatuta, erreferentzia egiteko eta ondoren berrerabiltzeko.

KD2: Eduki digitalak sortzen, integratzen eta berregiten ditu, banaka edo taldeka, segurtasunneurriak aplikatuz eta, une oro, egiletza digitaleko eskubideak errespetatuz, bere baliabideak zabaltzeko eta ezagutza berria sortzeko.

KD3: Gailu digitalak, tresnak, aplikazioak eta lineako zerbitzuak hautatu, konfiguratu eta erabiltzen ditu, eta ikaskuntza digitaleko bere ingurune pertsonalean txertatzen ditu, komunikatzeko, lankidetzan aritzeko eta informazioa partekatzeko. Horretarako, haien ekintzak, presentzia eta ikusgarritasuna modu arduratsuan kudeatzen ditu sarean, eta herritartasun digital aktibo, zibiko eta gogoetatsua gauzatzen du.

KD4: Arriskuak ebaluatzen ditu eta neurriak aplikatzen ditu teknologia digitalak erabiltzean gailuak, horien pribatutasuna eta besteena, datu pertsonalak, osasuna eta ingurumena babesteko, eta teknologia horien erabilera kritikoa, legala, segurua, osasungarria eta iraunkorra egiten du.

KD5: Konponbide teknologiko berritzaileak eta iraunkorrak bilatzen ditu bere kabuz bere arazo eta behar digital zehazterako, bere gaitasun digitala hobetzeko modu gisa, eta teknologia mota horien bilakaera baloratzen du ikuspegi jasangarri eta etikotik.

zientziak eta teknologiak bizi-baldintzetan egiten duten ekarpena modu kritikoan baloratzeko eta ezagutza berriak partekatzeko eta eraikitzeko.

STEM5: Osasun fisikoa eta mentala sustatzeko eta ingurumena eta izaki bizidunak babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzak planifikatzen eta abiarazten ditu, kontsumo arduratsua eginez, etikaren eta segurtasunaren printzipioak aplikatuz, balioa sortzeko eta bere ingurunea modu jasangarrian eraldatzeko, tokiko eremuan eta eremu globalean konpromisoak hartuz, herritartasun arduratsua gauzatuz.

STEM6: Ikerketa zientifikoak eta bere aplikazio eta aurrerapen zientifiko-teknologikoek gizartearen garapenean eta orainak eta etorkizunak planteatzen dizkieten erronken aurrean erabaki arrazoituak hartzean jokatzeko duten papera argudiatzen du.

(KPSII) KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA

KPSII1.1: Baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta helburuen bilaketa modu autonomoan indartzen ditu, ikaskuntza eraginkorra izan dadin.

KPSII1.2: Nortasun autonomoa garatzen du, eta aldaketak, parte-hartze soziala eta bere jarduera propioa modu konstruktiboan kudeatzen ditu bere bizitza zuzentzeko.

KPSII2: Bizimodu jasagarria modu autonomoan hartzen du eta norberaren eta besteen ongizate fisiko eta mentalari erantzuten dio, gizartean mundu osasuntsuago bat eraikitzeko laguntza bilatuz eta eskainiz.

KPSII3.1: Besteen emozioekiko eta esperientziekiko sentsibilitatea erakusten du, eta taldeak pertsonengan duen eraginaz jabetzen da, nortasun enpatiko eta independentea sendotzeko eta bere adimen emozionala garatzeko.

KPSII3.2: Zereginak, baliabideak eta erantzukizunak modu orekatuan banatzen ditu talde batean, helburuen arabera, eta ikuspegi sistemikoa bultzatzen du, helburu partekatuak lortzen laguntzeko.

KPSII4: Hainbat iturritatik datozen datuak, informazioa eta ideiak alderatu, aztertu, ebaluatu eta laburbiltzen ditu, ondorio logikoak modu autonomoan lortzeko eta horien fidagarritasuna baloratzeko.

KPSII5: Epe luzera, ezagutza eraikitzeko helburuak eta prozesuak planifikatzen ditu, eta ezagutzaren eremuak erlazionatzen ditu, ezagutza hori transmititzeko, ideia sortzaileak proposatzeko eta arazoak autonomiaz ebazteko aukera emango dioten ikaskuntza-prozesu autoerregulatuak garatzeko.

(HK) HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

HK1: Bere nortasunaren dimentsio sozial, historiko, zibiko eta moralari buruzko gertaerak, arauak eta ideiak aztertzen ditu, bere heldutasun pertsonala eta soziala sendotzen laguntzeko, herritarren kontzientzia eta kontzientzia arduratsua lortzeko, autonomia eta espiritu kritikoa garatzeko, eta besteekiko eta ingurunearekiko elkarrekintza baketsua eta errespetuzkoa ezartzeko.

HK2: Europako integrazio-prozesuari, Espainiako Konstituzioari, Autonomia Estatutuari, giza eskubideei eta norberaren historia eta kulturaondareari buruzko printzipioak, idealak eta balioak ezagutzen, aztertzen eta aplikatzen ditu hainbat testuingurutan, modu kritiko eta kontsekuentean, eta, aldi berean, talde-jarduera guztietan parte hartzen du printzipio eta prozedura demokratikoetan, berdintasunarekiko konpromiso etikoan, gizarte-kohesioan, garapen iraunkorrean eta munduko herritarren lorpenean oinarritutako jarrerarekin.

HK3: Funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etiko eta filosofikoen aurrean iritzi propioa eta arrazoitua hartzen du, balio, sinesmen eta ideien aniztasunari elkarriketaren aldeko jarrerarekin aurre eginez, diskriminazio eta indarkeria mota guztiak baztertuz, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta erantzunkidetasun eraginkorra aktiboki sustatuz.

HK4 : Gure bizimoduaren eta ingurunearen arteko interdependentzia- eta ekomendetasunharremanak aztertzen ditu, eta, horretarako, giza ekintzen aztarna ekologikoaren azterketa kritikoa egiten du, eta konpromiso etiko eta ekosozial arduratsua erakusten du Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta klima-aldaketaren aurkako borroka lortzera bideratutako jarduera eta ohiturekin.

(EK) EKINTZAILTZA- KONPETENTZIA

EK1: Beharrak eta aukerak ebaluatzen ditu eta erronkei aurre egiten die, zentzu kritiko eta etikoarekin, iraunkortasuna ebaluatuz eta, ezagutza tekniko espezifikoetatik abiatuta, ingurunean izan dezaketen inpaktua egiaztatuz, testuinguru lokaletara zein globaletara zuzendutako ideia eta irtenbide berritzaileak aurkezteko eta gauzatzeko, proiektzio profesional ekintzailea duten eremu pertsonal, sozial eta akademikoan.

EK2: Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak ebaluatu eta hausnartzen ditu, autoezagutza- eta autoeraginkortasun-estrategiak erabiliz, ezagutza ekonomiko eta finantzario espezifikoak barneratzen ditu, eta tokiko testuinguru eta testuinguru globaletara transferitzen ditu, lankidetzaren eta talde-lanaren arinduko duten estrategiak eta trebetasunak aplikatuz, beharrezko baliabideak bildu eta optimizatzeko, ekintzara esperientzia edo ekimen ekintzaile baliotsua eramango dutenak.

EK3: Ideia eta konponbide berritzaileak sortzeko prozesua gauzatzen du, eta erabakiak hartzen ditu, zentzu kritiko eta etikoarekin, proiektuak planifikatzeko eta kudeatzeko ezagutza tekniko espezifikoak eta estrategia arinak aplikatuz. Halaber, egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta egiten du, besteentzako balioaren azken prototipo bat egiteko, arrakastaren eta porrotaren esperientzia kontuan hartuta, ikasteko aukera bat baita.

(KAKK) KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA

KAKK1: Edozein garaitako kultura- eta arteondarea hausnartu, sustatu eta kritikoki baloratzen du, ondare horren berezitasunak kontrastatuz eta bere nortasunetik abiatuz, aniztasunari datzekion adierazpen-askatasuna, berdintasuna eta aberastea defendatzeko

KAKK2: Ondarearen hainbat adierazpen artistiko eta kulturalen berezitasunak eta intenzionalitateak ikertzen ditu, harrera aktiboko eta gozameneko jarrera baten bidez, horiek gauzatzeko testuinguru, bitarteko eta euskarri desberdinak bereiziz eta aztertuz, bai eta horiek ezaugarritzen dituzten lengoia eta elementu tekniko eta estetikoak ere.

KAKK3.1: Ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak sormenez eta espiritu kritikoz adierazten ditu, bere ekoizpen kultural eta artistikoak zorrotasunez eginez, modu aktiboan parte hartzeko giza eskubideen sustapenean eta praktika artistikoaren ondoriozko identitate pertsonalaren sozializazio- eta eraikuntzaprozesuetan.

KAKK3.2: Ea deskubritzen duen autoadierazpena, gorputz-interakzioaren eta hainbat tresna eta lengoia artistikorekin esperimendatzeko bidez, eta ea aurre egiten dien egoera sortzaileei, jarrera enpatiko eta kolaboratiboarekin, autoestimuekin, ekimenarekin eta irudimenarekin.

KAKK4.1: Sormenez hautatzen eta integratzen ditu hainbat bitarteko eta euskarri, bai eta teknika plastikoak, ikusizkoak, ikus-entzunezkoak, soinuak edo gorputzezkoak ere, proiektu artistiko eta kultural iraunkorrak diseinatzeko eta ekoizteko, eta eskaintzen dituzten garapen pertsonal, sozial eta laboralerako aukerak aztertzen ditu, interpretazioaz, egikaritzeaz, inprobisazioaz edo konposizioaz baliatuta.

KAKK4.2: Bere ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak planifikatu, egokitu eta antolatzen ditu, sormenez eta eraginkortasunez erantzuteko ekoizpen kultural edo artistiko indibidual edo kolektibo batetik eratorritako jarduerari, lengoia, kode, teknika, tresna eta baliabide plastiko, bisual, ikus-entzunezko, musikal, gorputzezko edo eszenikoak erabiliz, prozesua zein azken produktua baloratuz eta eskaintzen dituzten aukera pertsonal, sozial, inklusibo eta ekonomikoak ulertuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Enpresa eta bere ingurunea

1. Enpresaburua. Ekintzailea. Profilak*. Enpresaburuen irudiaren aitortza, egungo testuinguruaren eragile eraldatzaile gisa.* Ekintzailtza-kulturaren sustapena.
2. Enpresa. Sailkapena. *Enpresaren lokalizazioa eta dimentsioa: enpresa txiki eta ertainek euskal industria-ehunean duten garrantzi berezia*. Enpresa-jarduera arautzen duen esparru juridikoa. *Enpresen forma juridikoak. Kasu espezifiko bat: euskal kooperatibismoa. *
3. Enpresa-ingurunea*. Erantzukizun sozial korporatiboa. Emakumea eta ekintzailtza. Gizarteratzea eta ekintzailtza. Enpresak Garapen Iraunkorrerako Helburuekin duen konpromisoa: 2030 Agenda.
4. Enpresaren zerga- eta lan-arloko betebeharrak halabeharrez bete izanaren ikuskapena; euskal zerga-sistema eta Gizarte Segurantza. *
5. *Enpresa, digitalizazioa eta berrikuntza. I+G+B*. Berrikuntzaren teoriak. Berrikuntza motak. Joera emergenteak. Berrikuntza-estrategiak. Iraultza digitalak eta teknologikoak eragindako aldaketen balorazio kritikoa.

B. Negozio- eta kudeaketa-eredua.

1. Enpresa eta negozio-ereduak. Tradizionala versus egungoa.*
2. Merkataritza-funtzioa*. Bezeroen segmentua. Balio-proposamena. Kanalak. Bezeroekiko harremanak. Diru-sarreraren iturriak.
Marketin-estrategiak: marketin 2.0.
3. Ekoizpen- eta hornikuntza-funtzioa*. Ekoizpen-prozesua. Efizientzia eta produktibitatea. Funtsezko jarduerak. Funtsezko baliabideak. Funtsezko asoziazioak. *Kostuen egitura: kostuen sailkapena eta kalkulua.* Izakinak baloratzeko metodoak: FIFO eta batez besteko prezio haztatua; inbentarioaren kudeaketa: Eskabide-puntua. JIT.*
4. Giza baliabideen kudeaketa*. Talde arinen osaera eta funtzionamendua. Lan-merkatuak eskatzen dituen gaitasunak: lan kolaboratiboa eta talde-lana arintzen duten trebetasunen garapena eta hobekuntza. Kontratazioa eta enpresaren lan-erlazioak. Enpresetako berdintasuneta inklusio-politikak.
5. Finantza-funtzioa*. Ekonomia- eta finantza-egitura. Inbertsioa. *Inbertsioen balorazioa eta aukeraketa: VAN eta PAYBACK*. Finantza-baliabideak. Barne- eta kanpo-finantzaketako iturri alternatiboen analisia.
6. Enpresako informazioa: kontabilitate-betebeharrak. Ondarearen osaera eta balorazioa. Urteko kontuak eta irudi fidela.
Balantzearen elaborazioa eta galdu-irabazien kontua.

C. Negozio- eta kudeaketa-ereduetan berritzeko tresnak

1. Negozio- eta kudeaketa-ereduaren mihisea: kontzeptua, arloak, multzoak, utilitatea eta negozioereduen patroiak *(CANVAS eredu).*
2. Bezeroen ikuspuntua: *enpatia-mapa.*
3. Sormen-pentsamenduaren sustapena*, negozio- eta kudeaketa-ereduaren diseinura aplikatua. *Sormen-prozesua:* dibergentzia eta konbergentzia. Negozio-ereduetarako ideia berriak sortzeko dinamikak.
4. Lehia eta merkatu-hobiak bilatzeko tresnak: *Google Trends.*
5. Ideiak antolatzeko tresnak: ikus-pentsamendua edo Visual Thinking. Laburtzeko gaitasuna. Ideiagintza. *Komunikazioa.*
6. Prototipogintza: kontzeptua eta utilitatea. Prototipogintzaren aukerak: ondasunak, zerbitzuak eta aplikazioak.
7. Proiektu edo ideia baten aurkezpen eraginkor eta laburraren garrantziaren balorazioa*. Metodologia: istorioen kontaketa edo storytelling eta igogailuko diskurtsoa edo elevator pitch. Beste metodologia batzuk.
8. Agertokiak: ideien esplorazioa, etorkizuneko agertokiak eta negozio-eredu berriak.
9. Negozio- eta kudeaketa-ereduetan berritzeko beste tresna batzuk.

D. Enpresa-estrategia eta enpresa-errealitatea aztertze metodoak

1. Negozio-ereduaren ingurunea. Aurreikuspena: funtsezko joerak. Makroekonomia: aldagai makroekonomikoak. Lehia: lehia-indarrak.
2. Negozio-ereduaren aurretiazko ebaluazioa: *AMIA analisia* Diru-sarreraren eta kostuen aurreikuspenaren analisia eta *errentagarritasun-atalasea*.
3. Negozio-ereduaren balidazioa. Lean Startup. Bezeroen garapena. Produktu arineko garapena.
4. Ideiaren, produktuaren eta markaren babesa. *
5. Erabakiak hartzeko prozesua. Estrategiak. Simulazioa kalkulu-orrian. Oinarrizko negozioplanaren idazketa.
6. Emaitzen analisia: merkatuaren azterketa, *kontabilitate informazioaren interpretazioa* eta analisia, eta finantzako egoera-orrien analisia.

** Legearen arabera, asteriskodunak ezinbestekoak dira.*

Jakintza guztiak oinarrizkoak dira, baina asteriskodunak, ezinbestekoak.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOEN AZALPENA

1. Enpresa-jarduera eta jarduera ekintzailea aztertzea, gizartean duten eraldatzeahalmena onartuz eta prozesu horretako berrikuntzaren eta digitalizazioaren balioaz gogoeta ginez, gaur egungo ekonomiaren funtzionamendu orokorrean duten zeregina ulertzeko.

Errealitatea ikuspegi ekonomikotik ulertzea funtsezkoa da gure gizartea hobeto ulertzeko; horregatik, ikasleentzat garrantzi handikoa da pertsona ekintzaileek eta enpresek egungo testuinguruaren elementu eraldatzaile gisa betetzen duten zeregina ezagutzea. Izatez, dinamismo handia eta teknologia berriak eta haien aplikazio ugariak azkar barneratzeko ahalmena egungo testuinguruaren bereizgarri dira. Horrek guztiak eraginda, aldatzen ari da ekoizpen-egitura orokorra, baita egitura ekonomikoa eta gizarte osoa ere, eta horrek berrikuntza funtsezko elementu bihurtzen du edozein enpresarentzat. Ikasleak beren inguruan zer gertatzen den ulertzeko gai badira, beren bizitza eta gizartea hobetzeko erabakiak hartu ahal izango dituzte.

2. Ingurune ekonomikoa eta soziala eta ingurune horrek enpresa-jardueran duen eragina ikertzea, enpresen eta ingurunearen arteko erlazioak aztertuz eta erantzukizun sozial korporatiboaren, berdintasunaren eta inklusioaren irizpideetatik abiatzen diren estrategia bideragarriak identifikatuz, enpresen egokitze-gaitasuna baloratzeko.

Errealitatea ikuspegi ekonomikotik eta sozialetik aztertzean, ikasleak jabetu daitezke inguruneak enpresan duen eraginaz eta enpresa-funtzionamenduak gizartean edo ingurumenean dituen ondorioez, besteak beste. Enpresak ez dira gizartean gertatzen denaz kanpo dauden erakundeak; hori dela eta, ezinbestekoa da ulertzea ingurune orokorreko eta espezifikoko elementuek zer eragin duten hartzen diren erabakietan. Jakin-mina piztea eta errealitateari buruzko ikuspegi irekia izatea izango da ingurune sozioekonomikoa ikertzearen abiapuntua. Ezagutza horri esker, ikasleek konpondu behar diren arazoak identifikatu ahal izango dituzte eta gizarte-ongizatea areagotzen duten enpresa-soluzioak proposatu ahal izango dituzte. Horretarako, kontuan hartuko dute soluzio horiek baliabideen agortzea, prekaritatea, desberdintasuna eta bestelako desorekak eragin ditzaketela. Horregatik, funtsezkoa da ikasleek jakitea enpresa batzuek zer ahalegin egiten duten beren enpresa-helburuak Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) bat egin dezaten. Izatez, enpresa horiek Erantzukizun Sozial Korporatiboa (ESK) barne hartzen dute, eta, horrela, desoreka horiek murrizten lagunduko dute eta gizarte bidezkoagoa eta jasangarriagoa lortzen lagunduko duen balio-proposamena sortzeko gai izango

dira, ingurunera azkar egokitzeari utzi gabe. Halaber, ezinbestekoa da ikaslea jabetzea enpresak zerga- eta lan-betebeharrak betetzen dituela, ongizate-estatuari euste aldera eta hura garatze aldera

3. . Egungo negozio-ereduak ezagutzea eta ulertzea, beste eredu tradizional batzuekin alderatuz eta sormen-diseinua errazten duten estrategiak eta tresnak aplikatuz, balioa eman, beharrak ase eta ongizate ekonomiko eta sozialari laguntzen dioten negozioereduak proposatzeko.

Negozio-ereduak ezagutuko badira, enpresaren arlo funtzionalak aztertu beharko dira (ekoizpen-arloa, komertziala, finantzarioa...), arlo horiek baitira edozein negozio-ereduren ardatz nagusiak, tradizionalenetik berritzaileenera. Gaur egun enpresek, tradizionalenetik teknologikoenetara, ingurune dinamikoetan dihardute. Ingurune horietan aldaketak azkar batean gertatzen dira eta aurre egin beharreko arazoak konplexuak izaten dira. Ezaugarri horrek ziurgabetasun handia sortzen du etorkizunera begira, eta inpaktu handia eragiten du enpresen erabaki estrategikoetan. Negozio-eredu berrien bidez (adibidez, long tail, freemium, multiplataforma eta app), enpresek ingurune horiei aurre egin diezaiekete eta bizkor jardun ahal izango dute. Ikasleek eredu horiek ezagutu beharko dituzte, eta beste batzuk sormenez eta espiritu berritzailez proposatzeko eta diseinatzeko gai izan beharko dute. Negozio-ereduak sortzeko, CANVAS mihisearen tresna erabiltzea proposatzen da. Tresna horrekin, ikasleek beren balio-proposamena landuko dute eta jarduerak, baliabideak eta funtsezko asoziazioak egingo dituzte, baita kanalak eta bezeroekiko harremanak, kostuen egitura eta diru-sarreraren iturriak landu ere. Tresna horrekin batera, beste tresna osagarri batzuk ere landu daitezke, hala nola bezeroen enpatia-mapa, ikusizko pentsamendua edo ozeano urdinen estrategia. Gaur egun, enpresek helburu hauek ere planteatzen dituzte: aberastasuna eta, aldi berean, berrikuntza sortzea; etengabe hobetzeko eta ingurunera egokitzeo nahiari eustea; beharrak asetzea; eta gizarte-ongizatea areagotzea. Ezinbestekoa izango da ikasleek ulertzea dualtasun hori osagarria dela enpresaren ikuspuntutik.

4. Enpresa-munduan aplikatzekoak diren komunikazio-estrategiak baloratzea eta aukeratzea, formula berriak erabiliz eta enpresaren barruan nahiz kanpoan sortzen den informazioa lortuz, erabakiak hartzeko prozesuan beharrezkoa den informazioa eraginkortasunez kudeatzeko eta behar bezala transmititzeko

Edozein erabaki-prozesutan informazioa eskuratzea eta komunikazio eraginkorra izatea funtsezkoa da edozein arlotako helburuak lortuko badira. Zehazki, enpresen arloan hautematen da hori, enpresak berak zein harekin erlazionatzen diren gainerako eragileek erabiltzen baitute informazio-fluxua. Enpresa-munduan aplika daitezkeen eta teknologia berriei oso lotuta dauden komunikazio-estrategiak erabiliz gauzatzen da hori guztia. Aurrekoarekin lotuta, ikasleek komunikazio-estrategia eraginkorrak eta arinak baliatu behar dituzte enpresaren eta inguruko eragileen artean informazioa trukatu eta kudeatzean; horrez gain, komunikazio-tresnak aplikatzen jakin behar dute, hala nola istorioen kontaketa (storytelling) eta igogailuko diskurtsoa (elevator pitch). Prozesu horretan, funtsezkoa da ikasleek jarrera kooperatiboa eta errespetuzkoa izatea komunikatzeko moduan, baita argudiatzen eta entzuten ikastea eta ezagutarazi nahi dutena eraginkortasunez transmititzen ikastea ere. Azkenik, XXI. mendeko berezko ekonomia-globalizazioak berarekin dakar enpresak gero eta nazioartekoagoak izatea eta gero eta gehiagotan beste hizkuntza batean komunikatzea. Horretarako, funtsezkoa da ikasleek zenbait hizkuntza ikasi eta erabiltzea, askotariko egoeretan zuzen eta autonomiaz komunika daitezen.

5. Diseinatutako negozio-ereduaren behin-behineko analisia egitea, gauzatutako prozesu osoa ulertzeko eta negozio-ereduaren proposamena baliozkotzeko behar diren enpresa-analisirako tresnak aplikatuz..

Prozesuaren zenbait unetan aplikatutako enpresa-analisirako tresnei esker, lor daiteke negozio-ereduaren proposamena baliozkotzeko informazioa. Baliozkotzea simulatutako egoera jakin batean egin behar da, eta, horretarako, ikasleei prozesu osoaren ikuspegi orokorra emango zaie, eta, aldi berean, ordura arte hartutako edozein erabaki zuzentzeko edo birplanteatzeko aukera emango zaie. Lortutako informazio guztia, hartutako erabakiak, erabaki horien justifikazioa, eta erabilitako analisi-tresnen emaitzak dira ikasleek oinarritzko negozio-plan bat egiteko oinarria. Horrela, helburua da ikasleak enpatizatzea eta pertsona ekintzailearen lekuan jartzea, egindako prozesu osoaren ikuspegi integrala lortzea eta asmatzeetatik nahiz akatsetatik ikastea.